



ESTADÍSTIKA
ORGANOA

ORGANO
ESTADÍSTICO

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA
ETA ETXEBIZITZA SAILA
*Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistika Organo Berezia*

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA
*Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico*

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

ERAIKUNTZARI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTADISTIKA 2018ko 3. hiruhilekoa

Emitza nagusiak

*Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren
Estatistika Organo Berezia*



1. OBRA HANDIKO LIZENTZIAK

Emandako obra handiko lizentzien kopuruak behera egin du lurralde historiko guztietan aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, baina gora egin du Araban eta Gipuzkoan 2017ko hiruhileko berarekin alderatuta

Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko inkestak agerian jartzen duenez, 2018ko hirugarren hiruhilekoan, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) udalek guztira obra handiko 768 lizentzia eman zituzten. Emaitza horiek 2018ko bigarren hiruhilekoan jasotakoak baino nabarmen apalagoak dira. Izan ere, 180 lizentzia gutxiago eman ziren, eta horrek esan nahi du % 19,0ko murrizketa izan dela datu erlatiboari erreparatuta. Aurreko urteko hiruhileko berarekin konparatuta, aldiz, jarduerak gora egin du: 60 lizentzia gehiago onartu dira; beraz, % 8,5eko hazkundera izan da.

Bizkaian eman dira hiruhilekoko obra handiko lizentzien % 45,7; guztira, 351. Atzetik doa Araba 217 lizentziarekin, guztien % 28,3. Gainerako 200 lizentziak, guztien % 26,0, Gipuzkoan eman dira.

EAEko lurralde historikoen artean, Bizkaian egin du gehien behera obra handiko lizentzien kopuruak 2018ko bigarren hiruhilekoaren eta hirugarrenaren artean. Lurralde horretan, kontuan hartutako lizentzien kopuruak % 32,4 egin du behera erreferentzia-aldian (168 lizentzia gutxiago). Arabako beherakada Bizkaikoa baino apalagoa izan da: aurreko hiruhilekoan baino 9 lizentzia gutxiago, hau da, % 4,0ko beherakada. Gipuzkoan, aldiz, emandako lizentzien kopuruak % 1,5 egin du behera 2018ko bigarren hiruhilekoaren eta hirugarrenaren artean; guztira, 3 lizentzia gutxiago izan dira.

Urte arteko emaitzak positiboak izan dira lurralde historiko guztietan, Bizkaian izan ezik. Bizkaiko lurraldean 44 lizentziako beherakada absolutua egon da 2017ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta; beraz, % 11,1eko beherakada erlatiboa egon da. Gipuzkoan, berriz, urte arteko igoaldia 60 lizentziakoa izan da, eta epealdiko gorakada erlatiboa, aldiz, % 42,9. Araban ere igo da emandako lizentzien kopurua; izan ere, 2017ko hirugarren hiruhilekoan obra handiko 173 lizentzia eman ziren, hiruhileko honetan baino 44 gutxiago (217 lizentzia, % 25,4ko igoerarekin).

Birgaitzeko obrei lotutako lizentziak nagusi dira oraindik ere

2018ko hirugarren hiruhilekoan, **emandako lizentzia moten** arabarako banaketan, mantendu egin da aurreko hiruhilekoetako joera. Argi eta garbi nagusitzen dira birgaitzeko obra handiko lizentziak.

Zehaztasunez, erreferentziako hiruhilekoan, birgaitzeko obrei lotutako lizentziak obra handiko lizentzien % 83,9 izan dira (2018ko bigarren hiruhilekoko % 82,9tik eta 2018ko lehen hiruhilekoko % 83,1etik gora), eraikuntza berriko eraikinetarako % 13,8 izan dira (2018ko bigarren hiruhilekoko % 15,3tik eta lehen hiruhilekoko % 14,6tik behera) eta eraispentarako, berriz, % 2,3. Kopuru absolutuak honako hauek dira: birgaitzeko 644 lizentzia (2018ko bigarren hiruhilekoan baino 137 gutxiago, % 17,5eko



beherakadarekin), 106 eraikuntza berrirako (39 lizentzia gutxiago, % 26,9ko beherakadarekin) eta eraisteko 18 lizentzia, aurreko hiruhilekoan baino lau gutxiago.

2018ko hirugarren hiruhilekoan, aztertzen den lurralde historikoa zein den, ezberdin banatzen dira eraikuntza berriko lizentzien eta birgaitzekoek emandako lizentzien kopuru osoan egiten duten zatia. Araban, eraikuntza berriak pisu erlatibo handixeagoa du: emandako obra handiko lizentzia guztien % 18,0 eman dira Araban; Bizkaian, % 12,3; eta, Gipuzkoan, % 12,0. Horrek kontrako efektua dauka birgaitzeko obra handiko lizentzietan, eraispenen eragin desberdinaren ñabardurarekin: Araban, birgaitzeko lizentziak emandako lizentzia guztien % 80,2 dira; Bizkaian, aldiz, proportzio hori % 85,5 da, eta Gipuzkoan, % 85,0.

1. taula. Obra handiko lizentzien kopurua, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2018ko 3. hiruhilekoa

(Hiruhilekoko balio absolutuak eta portzentaje bertikalak. Aldakuntza absolutua eta portzentajezkoa, aurreko hiruhilekoarekin eta aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK		2018ko 3. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza		Aurreko urteko hiruhileko berarekiko aldakuntza	
		Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %	Kopurua	Aldak. %
EAE	Guztira	768	100,0	-180	-19,0	60	8,5
	Eraikuntza berria	106	13,8	-39	-26,9	12	12,8
	Birgaikuntza	644	83,9	-137	-17,5	44	7,3
	Eraistea	18	2,3	-4	-18,2	4	28,6
Araba	Guztira	217	100,0	-9	-4,0	44	25,4
	Eraikuntza berria	39	18,0	2	5,4	14	56,0
	Birgaikuntza	174	80,2	-11	-5,9	27	18,4
	Eraistea	4	1,8	0	0,0	3	300,0
Bizkaia	Guztira	351	100,0	-168	-32,4	-44	-11,1
	Eraikuntza berria	43	12,3	-31	-41,9	6	16,2
	Birgaikuntza	300	85,5	-139	-31,7	-51	-14,5
	Eraistea	8	2,3	2	33,3	1	14,3
Gipuzkoa	Guztira	200	100,0	-3	-1,5	60	42,9
	Eraikuntza berria	24	12,0	-10	-29,4	-8	-25,0
	Birgaikuntza	170	85,0	13	8,3	68	66,7
	Eraistea	6	3,0	-6	-50,0	0	0,0

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxegintzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2018ko 3. hiruhilekoa

2018ko bigarren hiruhilekoaren eta hirugarrenaren arteko epealdian ikusi denez, Araban arinki egin du gora eraikuntza berriko lizentzien kopuruak (+% 5,4), baina behera egin du birgaitzeko obrenak (-% 5,9). Gipuzkoan, aldiz, birgaitzeko lizentzien gora egin dute (+% 8,3), baina eraikuntza berrikoek, berriz, behera egin dute (-% 29,4).



Bizkaian, beherakada erlatiboa esanguratsua da eraikuntza berriko lizentziei dagokienez (-% 41,9) nahiz birgaitze-jarduerekin lotutakoei dagokienez (-% 31,7).

Urte arteko bilakaerari bagagozkio, Arabak izan du bilakaerarik onena eraikuntza berriko lizentzietan, mota horretako lizentzia dezente gehiago eman ditu eta (+% 56,0). Bizkaiaren kasuan, igoera izan da, baina apur bat txikiagoa: % 16,2. Gipuzkoan, aldiz, % 25eko jaitsiera egon da aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuz gero. EAE osoa aintzat hartuta, urte arteko aldakuntza positiboa ikusten da obra berriko lizentzietan; hala, 2017ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta, % 12,8ko aldakuntza erregistratu da, obra handiko 12 lizentzia gehiago eman baitira.

Birgaitzeko lizentziek ere gora egin dute EAEn 2017ko hirugarren hiruhilekoaren eta 2018koaren artean, baina eraikuntza berriko lizentziek baino motelago (+% 7,3; eraikuntza berrikoek, aldiz, +% 12,8). Igoera hori Gipuzkoan gertatutako gorakadarekin dago lotuta (+% 66,7), EAEko batezbestekoa baino nabarmen handiagoa izan baita, bai eta Araban neurri txikiagoan izandakoarekin ere (+% 18,4). Bizkaia da, ordea, tankera horretako lizentzia gutxiago eman diren lurraldea (-% 14,5).

Metatutako urte arteko datuek erakusten dutenez, igoera egon da EAEn 2018ko hirugarren hiruhilekoan emandako lizentzien kopuruan

Urteko datu metatu horiek 2017ko laugarren hiruhilekoaren eta 2018ko hirugarren hiruhilekoaren artean emandako lizentzia guztiak kontabilizatzen dituzte; aurreko urteko hiruhileko berberen (2016ko laugarren hiruhilekotik 2017ko hirugarren hiruhilekora) urteko metatuarekin konparazioa eginez gero, ikusten denez, 395 lizentzia gehiago eman dira; hau da, 2017ko epealdi konparagarrian baino % 13,3 gehiago. Igoera txikiagoa da eraikuntza berriko lizentzien kasuan, EAEn % 12,2 gehitu baitira (56 lizentzia gehiago); birgaitzekoen kasuan, aldiz, +% 13,4 (330 lizentzia gehiago). Eraisteko soilik diren obretarako emandako lizentzien kopuruak ere gora egin du, % 13,4; hots, 9 lizentzia gehiago eman dira.

Eraikuntza berriko obrei nahiz birgaitze-obrei dagokienez, hiru lurralde historikoetan 2018ko hirugarren hiruhilekoko metatutako datuen bilakaerak dinamika positiboa adierazten du

Urte arteko datu metatuak lurralde historikoaren arabera aztertuta, agerian geratzen da EAEn dinamika ezberdinak daudela.

Gipuzkoak gorakada nabarmena izan du azken urtean metatutako lizentzia kopuruan, aurreko urteko epealdi berarekin alderatuta (+% 25,6 egin du gora, 156 lizentzia gehiago eman baitira). Arrazoi nagusia da Gipuzkoan beste lurralde historikoetan baino gehiago hazi dela birgaitzea (+% 29,8). Ostera, eraikuntza berriko obra-lizentziei dagokienez, igoera txikiena izan duen lurralde historikoa izan da: +% 6,4koa, hau da, 8 lizentzia gehiago soilik.



2. taula. Obra handiko lizentzien kopurua, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. Metatutako urteko datuak, 2018ko 3. hiruhilekoan

(Balio absolutuak eta portzentajea. Urte arteko aldakuntza absolutua eta portzentajeakoa)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK		Metatua 4. hh-tik (2017) 3. hh-ra (2018)		Metatua 4. hh-tik (2016) 3. hh-ra (2017)		Urteko metatuaren aldakuntza, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta	
		Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %
EAE	Guztira	3.375	100,0	2.980	100,0	395	13,3
	Eraikuntza berria	514	15,2	458	15,4	56	12,2
	Birgaikuntza	2.785	82,5	2.455	82,4	330	13,4
	Eraistea	76	2,3	67	2,2	9	13,4
Araba	Guztira	812	100,0	771	100,0	41	5,3
	Eraikuntza berria	146	18,0	124	16,1	22	17,7
	Birgaikuntza	650	80,0	635	82,4	15	2,4
	Eraistea	16	2,0	12	1,6	4	33,3
Bizkaia	Guztira	1.797	100,0	1.599	100,0	198	12,4
	Eraikuntza berria	235	13,1	209	13,1	26	12,4
	Birgaikuntza	1.534	85,4	1.357	84,9	177	13,0
	Eraistea	28	1,6	33	2,1	-5	-15,2
Gipuzkoa	Guztira	766	100,0	610	100,0	156	25,6
	Eraikuntza berria	133	17,4	125	20,5	8	6,4
	Birgaikuntza	601	78,5	463	75,9	138	29,8
	Eraistea	32	4,2	22	3,6	10	45,5


Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxegintzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2018ko 3. hiruhilekoa

Arabara, 41 lizentziako gorakada arinak urte arteko gorakada metatua ekarri du, % 5,3ko gorakada, alegia, obra-lizentzien guztizko kopuruan, baina lurralde horretan diferentziak ikusten dira emandako lizentzien kopuruaren bilakaeran, motaren arabera. Birgaitzeko lizentziak, urte arteko datuak hartuta, % 2,4 soilik igo dira; eraikuntza berriko lizentzien kopurua, ordea, neurri handiagoan igo dira (+% 17,6), mota horretako 22 lizentzia eman baitira.

Bizkaian, bestalde, hobekuntza izan da emandako lizentzien kopuruan (+% 12,4). Birgaitzeko lizentziak % 13,0 ugaritu dira urte arteko datuetan (177 lizentzia gehiago), eta eraikuntza berriko lizentzien igoera antzekoa izan da, +% 12,4, 26 lizentzia gehiago eman direlako.



1. grafikoa. Obra handiko lizentzien kopuruaren bilakaera, lurralde historikoaren eta hiruhilekoaren arabera. EAE. 1998-2018



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxegintzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2018ko 3. hiruhilekoa

2. EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIAK ZER ERABILERATARAKO ZIREN

2018ko hirugarren hiruhilekoan okerrera egin du bizitegirako diren obra handiko lizentzien kopuruak, baita bizitegitarako ez direnenak ere, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta; aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta, berriz, igo egin dira bizitegirako lizentziak

2018ko hirugarren hiruhilekoan obra handiko 750 lizentzia eman ziren eraikuntza berriko eraikinak egiteko edo lehendik zeuden eraikinak birgaitzeko. Lizentzia horietako gehienak (579, guztien % 77,2) **bizitegi-erabilerako** proiektuei lotu zitzaizkien, eta gainerako 171k, guztien % 22,8, bizitegitarako ez diren erabilerarako proiektuei¹.

¹ Txostenaren atal honetan egiten den azterketatik bazter geratzen dira eraisteko obra-lizentziak, ez direlako ezertarako erabiltzen obra egikaritu ondoren (geroago eraikinik egiten bada, horretarako beste lizentzia-eskari bat tramitatu beharko da). Kontuan hartu beharreko beste alderdi bat da erabilera mistoko eraikinak (bizitegitarakoak eta bizitegitarakoak ez direnak) bizitegi-erabilerako kategorian sartzen direla.



2018ko hirugarren hiruhilekoan **bizitegi-erabilerarako ez diren** obra-lizentziak dagokien sektorearen arabera aztertuz gero, ikusten da zerbitzuen sektoreko erabilerarako direnak nabarmendu direla (lizentzia guztien % 64,3). Industriaren eta energiaren sektorerara beste % 26,3 bideratu zen, eta gainerako % 9,4a, berriz, lehen sektoreko jardueretara.

Lizentzien **hiruhilekoko bilakaerari** dagokionez, 2018ko bigarren hiruhilekoaren eta hirugarrenaren artean, ikusten da bizitegi-erabilerako proiektuekin lotutakoek behera egin dutela (-% 16,7) eta beherakada hori nabarmenagoa izan dela bizitegi-erabilerakoak ez diren lizentziei dagokienez (-% 26,0).

Bizitegi-erabilerarako ez diren lizentzien beherakada horrek (-% 26,0), 2018ko bigarren hiruhilekoaren eta hirugarrenaren artean gertatua berau, **lehen sektorearekin** (-% 44,8) izan du lotura, batez ere; eta, neurri txikiagoan, **zerbitzu-sektorearekin** (-% 24,7) eta **industriaren eta energiaren** sektorearekin (-% 19,6).

2017ko hirugarren hiruhilekoaren eta 2018koaren arteko **urteko** konparazioak datu positiboak ematen ditu bizitegi-erabilerarako lizentziei dagokienez (+% 13,5), baina negatiboak, aldiz, bizitegi-erabilerarako ez diren lizentziei dagokienez (-% 7,1).

3. taula. Obra handiko lizentziak, obra zer erabileratarako zen kontuan hartuta. 2018ko 3. hiruhilekoa

(Balio absolutuak eta portzentajea. Urte arteko aldakuntza absolutua eta portzentajezkoa)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK	2018ko 3. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza		Aurreko urteko hiruhileko berarekiko aldakuntza	
	Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %	Kopurua	Aldak. %
Guztira	750	100,0	-176	-19,0	56	8,1
Bizitegia	579	77,2	-116	-16,7	69	13,5
Bizitegia ez dena	171	22,8	-60	-26,0	-13	-7,1
-Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	16	9,4	-13	-44,8	-1	-5,9
-Industria eta energia	45	26,3	-11	-19,6	-11	-19,6
-Zerbitzuak	110	64,3	-36	-24,7	-1	-0,9

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxegintzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2018ko 3. hiruhilekoa

2017ko eta 2018ko hirugarren hiruhilekoen artean bizitegi-erabilerarako ez diren lizentziak ematearen barne-dinamikari dagokionez, gorakadak erregistratu dira jardueraren sektore guztietan. Jaitsierarik handiena industria eta energiaren sektoreak izan du (-% 19,6), eta intentsitate txikiagoarekin lehen sektoreak (-% 5,9); eta zerbitzuen sektoreak (-% 0,9).



Urte arteko kopuru metatuetan, gora egin dute bizitegi-erabilerarako ez diren lizentzien kopuruak eta bizitegi-erabilerakoena

Metatutako urte arteko adierazleen aurreikuspenak positiboak dira bi tipologietan, baina intentsitate desberdinarekin. Hartara, 2017ko hirugarren hiruhilekora arteko urte arteko kopuru metatuak (2016ko laugarren hiruhilekotik 2017ko hirugarrenera artekoak) 2018ko hiruhileko berari dagozkionekin (2017ko laugarren hiruhilekotik 2018ko hirugarrenera artekoak) alderatzen baditugu, ikusten dugu bizitegi-erabilerarako emandako lizentzietan gorakada bat izan dela (+% 14,5) eta bizitegi-erabilerarako ez direnak ere ugartu egin direla –nahiz eta intentsitate txikiagoarekin hazi– (+% 9,6).

4. taula. Obra handiko lizentziak, obra zer erabileratarako zen kontuan hartuta. Metatutako urteko datuak, 2018ko 3. hiruhilekoan

(Balio absolutuak eta portzentajea. Urte arteko aldakuntza absolutua eta portzentajezkoa)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK	Metatua 4. hh-tik (2017) 3. hh-ra (2018)		Metatua 4. hh-tik (2016) 3. hh-ra (2017)		Urteko metatuaren aldakuntza, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %
Guztira	3.299	100,0	2.913	100,0	386	13,3
Bizitegia	2.510	76,1	2.193	75,3	317	14,5
Bizitegia ez dena	789	23,9	720	24,7	69	9,6
-Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	87	11,0	68	9,4	19	27,9
-Industria eta energia	220	27,9	197	27,4	23	11,7
-Zerbitzuak	482	61,1	455	63,2	27	5,9

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxegintzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2018ko 3. hiruhilekoa

Bizitegi-erabilerarako ez diren obra-lizentziei dagokienez, 2018ko hirugarren hiruhilekoko urteko datu metatuek erakusten dutenez, hobekuntza bat gertatu da jarduera-sektore guztietan lizentzien kopuruaren bilakaeran. Batez ere, lehen sektorean ugartu dira (+% 27,9), eta, ondoren, industriaren eta energiaren sektorean (+% 11,7). Zerbitzu-sektorean, berriz, beste sektoreetan baino susperraldi xumeagoa gertatu da (+% 5,9).

3. AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZAK, EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIEN ARABERA

Etxebizitzak eraikitzeke aurreikuspenak okerrera egin du aurreko hiruhilekoaren aldean, baina hobera egin du iazko hiruhileko beraren aldean

2018ko hirugarren hiruhilekoan emandako bizitegi-erabilerako obra handiko 579 lizentziak guztira 1.457 etxebizitzari lotu zitzaizkien (aurreko hiruhilekoan baino 86



gutxiago). Etxebizitza horietatik 1.101 eraikuntza berriko jarduketei lotzen zaizkie, eta gainerako 356 jarduketak birgaitzeko prozesuan dauden etxebizitzak dira².

Zehaztu behar da eraginpean dauden eraikuntza berriko etxebizitzaren bolumenak gorabehera handiak izan ahal dituela hiruhilekoan, hiruhileko batetik bestera onartzen diren tamaina handiko sustapenen kopuruaren arabera. Alderdi hori gogoan izanik, atzeraldia detektatu da 2018ko bigarren hiruhilekoaren eta hirugarrenaren artean, EAEn aurreikusitako eraikuntza berriko etxebizitzaren kopuruan (-% 12,1). 2017ko hirugarren hiruhilekoko kopurua 2018ko hiruhileko bereko kopuruarekin konparatzen bada, ikusten da egoerak onera egin duela eraikuntza berriko etxebizitzaren aurreikuspenean (+% 35,8).

Bestalde, hobekuntza ikusten da 2018ko hirugarren hiruhilekoan birgaitzeko aurreikusten diren etxebizitzaren kopuruan, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (+% 22,8), eta are hobekuntza handiagoa 2017ko hiruhileko berarekin alderatuta (+% 66,4).

2018ko hirugarren hiruhilekoan, **Bizkaia** da aurreikusitako jarduketa gehien dituen lurraldea, eta, guztira, 854 etxebizitza daude halako jarduketei lotuta; haietako % 81,5 eraikuntza berrikoak dira (696 etxebizitza). Lurralde horretan, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta behera egin du eraikuntza berriko etxebizitza kopuruak (-% 7,2), baina hobera egin du 2017ko hiruhileko berarekin alderatuta (+% 74,4). Birgaitze-jarduketekin lotuta dauden etxebizitzaren kopuruari dagokionez, halakoen bolumena arinki handitu da 2018ko bigarren hiruhilekoari dagokionez (+% 1,9), eta are gehiago handitu da 2017ko hirugarren hiruhilekoari dagokionez (+% 54,9).

Gipuzkoan, bestalde, 368 etxebizitzatarako jarduketak egin dira 2018ko hirugarren hiruhilekoan. Eraikuntza berriko 238 etxebizitza eraikitzea aurreikusten da, eta perspektiba negatiboa dago aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (-% 49,6), bai eta 2017ko hiruhileko berarekin alderatuta (-% 33,9). Birgaitzeko jardueri dagokionez, aldiz, Gipuzkoan handitu egin da birgaituko diren etxebizitzaren kopurua, 2018ko bigarren hiruhilekoaren eta oraingoaren artean garatutako jarduerari dagokionez (+% 58,5), eta intentsitate handiagoz gertatu da aurreko urteko hiruhileko berari dagokionez (+% 91,2).

Araban, azkenik, 235 etxebizitzatarako jarduketak erregistratu dira. Gorakada nabarmena egon da 2018ko bigarren hiruhilekoaren eta hirugarrenaren artean aurreikusitako etxebizitza kopuruari dagokionez (+% 179,8), eta horrek zerikusia dauka azken hiruhilekoan izan den eraikuntza berriei lotutako ekintzen gorakada handiarekin

² Birgaitutako etxebizitzaren kontaketa ez dira kontuan hartzen etxebizitza bat baino gehiagoko etxebizitza-eraikinak, zeinetan eraikineko elementu komunei soilik eragiten dieten birgaitze-obrak egiten diren. Ukitutako etxebizitza birgaituen kontaketa, honako esku-hartze hauek hartzen dira kontuan soil-soilik: familia bakarreko eraikin edo etxebizitzaren birgaitze integralak eta etxebizitza bat baino gehiagoko eraikin baten barruko bao bateko edo gehiagoko (etxebizitzak) birgaitzea (azken kasu horretan, kontuan hartzen da garatutako bereizte edo bat-egite prozesuetatik ateratzen den etxebizitza kopurua).



(+% 438,7); urte arteko bilakaerari dagokionez ere, gorakada handia izan da (+% 221,2). Beste alde batetik, birgaitzeko jarduketei lotutako etxebizitzaren kopuruak gora egin du (% 28,3), 2018ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta; eta % 54,5 egin du gora aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta.

5. taula. Aurreikusitako etxebizitzak, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2018ko 3. hiruhilekoa

(Hiruhilekoko balio absolutuak eta portzentaje bertikalak. Aldakuntza absolutua eta portzentajezkoa, aurreko hiruhilekoarekin eta aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta)

AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZEN KOPURUA		2018ko 3. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza		Aurreko urteko hiruhileko berarekiko aldakuntza	
		Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %	Kopurua	Aldak. %
EAE	Guztira	1.457	100,0	-86	-5,6	432	42,1
	Eraikuntza berria	1.101	75,6	-152	-12,1	290	35,8
	Birgaikuntza	356	24,4	66	22,8	142	66,4
Araba	Guztira	235	100,0	151	179,8	139	144,8
	Eraikuntza berria	167	71,1	136	438,7	115	221,2
	Birgaikuntza	68	28,9	15	28,3	24	54,5
Bizkaia	Guztira	854	100,0	-51	-5,6	353	70,5
	Eraikuntza berria	696	81,5	-54	-7,2	297	74,4
	Birgaikuntza	158	18,5	3	1,9	56	54,9
Gipuzkoa	Guztira	368	100,0	-186	-33,6	-60	-14,0
	Eraikuntza berria	238	64,7	-234	-49,6	-122	-33,9
	Birgaikuntza	130	35,3	48	58,5	62	91,2

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxegintzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2018ko 3. hiruhilekoa

Urte arteko kopuru metatuetan, Gipuzkoako emaitzek soilik egin dute okerrera, eraikuntza berriko etxebizitzari dagokienez. Birgaitzearen kasuan, EAEko lurralde guztietako emaitzek egin dute hobera

Aurreikusitako etxebizitzaren kopuruan hiruhilekoan izandako gorabehera handiak kontuan hartuta, **emaitzen urteko dinamika metatua** aztertzea komeni da. Eragiketarako modu horretan eginda, egiaztatzen da bizitegitarako xedea duen urteko jarduerari, 2018ko hirugarren hiruhilekora arte metatutakoa, guztira aurreikusitako 5.723 etxebizitzari eragiten dien jarduketak direla. Horrek esan nahi du % 14,4ko gorakada egon dela (722 etxebizitza gehiago), 2017ko hirugarren hiruhilekora arte metatutako urteko jarduerari dagokionez. Gorakada hori batez ere birgaitze-jarduketekin lotzen da, ukitutako etxebizitzaren kopurua % 33,6 handitu baita (284 etxebizitza gehiago). Eraikuntza berriko jarduketei dagokienez, emaitzen hobekuntza txikiagoa da (+% 10,5; 2017ko hirugarren



hiruhilekoan, aurreikusitako jarduketek 4.155 etxebizitza ukitu zituzten, eta, 2018ko aldi berean, 4.593 etxebizitza).

6. taula. Aurreikusitako etxebizitzak, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. Metatutako urteko datuak, 2018ko 3. hiruhilekoan

(Balio absolutuak eta portzentajea. Urte arteko aldakuntza absolutua eta portzentajeakoa)

AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZEN KOPURUA		Metatua 4. hh-tik (2017) 3. hh-ra (2018)		Metatua 4. hh-tik (2016) 3. hh-ra (2017)		Urteko metatuaren aldakuntza, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta	
		Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %
EAE	Guztira	5.723	100,0	5.001	100,0	722	14,4
	Eraikuntza berria	4.593	80,3	4.155	83,1	438	10,5
	Birgaikuntza	1.130	19,7	846	16,9	284	33,6
Araba	Guztira	898	100,0	561	100,0	337	60,1
	Eraikuntza berria	649	72,3	366	65,2	283	77,3
	Birgaikuntza	249	27,7	195	34,8	54	27,7
Bizkaia	Guztira	3.180	100,0	2.495	100,0	685	27,5
	Eraikuntza berria	2.627	82,6	2.114	84,7	513	24,3
	Birgaikuntza	553	17,4	381	15,3	172	45,1
Gipuzkoa	Guztira	1.645	100,0	1.945	100,0	-300	-15,4
	Eraikuntza berria	1.317	80,1	1.675	86,1	-358	-21,4
	Birgaikuntza	328	19,9	270	13,9	58	21,5

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxegintzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2018ko 3. hiruhilekoa

Dinamika orokorra, hala ere, lurralde bakoitzeko portaera desberdinek baldintzatzen dute. Ildo horretan, hiru lurralde historikoek izan dute bilakaera positiboa birgaitzearen arloan. Bizkaiaren urte arteko kopuru metatuak gora egin du 2017ko eta 2018ko hirugarren hiruhilekoen artean (+% 45,1), eta Araban eta Gipuzkoan, berriz, igoera apalagoa izan da (+% 27,7 eta +% 21,5, hurrenez hurren).

Lurraldeen arteko desberdintasunak nabarmenagoak dira etxebizitza berrietarako aurreikusitako jarduketei dagokienez. Kasu horretan, ikusten da Araban jarduera nabarmen hobetu dela (+% 77,3). Bizkaiaren hobekuntza apalagoa da (+ 24,3). Gipuzkoan, aldiz, % 21,4ko beherakada izan da 2018ko hirugarren hiruhilekorako aurreikusitako etxebizitzaren urteko bolumen metatua, 2017ko hiruhileko berarekin alderatuta.



ALDERDI METODOLOGIKOAK

Eraikuntzari eta etxebizitzari buruzko estatistika zentsu-eragiketa bat da, eta bertako informazioa EAEko 251 udalek igortzen dute hilero. Informazio hori udalerrian emandako obra handiko lizentziei buruzkoa da, bai eta etxebizitza babestuak sustatze aldera udalak eskuratutako lurzoruari buruzkoa ere. Bestalde, udalak alokatzeko daukan etxebizitza-parkeari buruzko informazioa ere jasotzen da urtero.

Eraikuntzari eta etxebizitzari buruzko estatistikaren helburu orokorra honako hau da: jakitea Euskal Autonomia Erkidegoan zenbat, zer eta non eraikitzen, birgaitzen eta eraisten den. Udalek emandako obra handiko lizentziak oinarri hartuta, obraren ezaugarri nagusiak (oin berria, birgaikuntza edo eraispena), eraikinaren erabilera eta eragindako etxebizitzak zein diren jakin nahi da.

Definizioak.

Obra handiko lizentzia. Obra handiko lizentzia obra handiak egiteko baimen bat da, tokian tokiko administrazio eskudunak ematen duena, oin berriko edozein eraikuntza mota egiteko edo eraikinak eraitsi edo birgaitzeko, horiek bizitegi-erabilerakoak izan zein ez. Baimenaren helburua da egiaztatzea lizentzia-eskaera bat datorrela hirigintza-araudiak xedatzen duenarekin.

Ondorio horietarako, honako hauek jotzen dira obra handitzat.

a. Oin berriko obra. Eraikin berri bat eraikitzeko obra handia da, aldeztatik beste eraikin bat osorik eraitsita edo eraitsi gabe. Eraikinak bizitegi-erabilera izan dezake, edo bestelako erabilera bat.

b. Birgaitze-obra. Aurrekoa ez bezala, ez da eraikin berririk eraikitzeko obra handia, baizik eta jada eraikita daudenetan egitekoa, aldeztatik eraispentziazko eginda edo egin gabe.

Obraren eraginpean dagoen eraikinak bizitegi-erabilera izan dezake, edo bestelako erabilera bat.

Birgaitze-obra bat obra handitzat jotzeko, arkitekto edo pareko batek ikus-onetsitako proiektu tekniko bat egin beharko da. Proiektu tekniko hori nahitaezko baldintza gisa jaso beharko da lizentzia emateko aurkeztu behar den dokumentazioan, eta baldintza hori betetzen ez dutenak obra txikiko lizentziatzat hartuko dira.

Obra horiek bi motatakoak izan daitezke.

- Handitzeko obra. Lehendik eraikitako azalera handitzen denean, egiturazko elementu berriak erantsita. Handitze hori bertikalean egin daiteke, lurzoruaren



gainean hartutako azalera areagotu gabe (adibidez, beste solairu bat erantsita), edo horizontalean; azken kasu horretan, lurzoruan azalera gehiago hartzen da.

- Erreforma- eta/edo zaharberritze-obra. Eraikinaren azalera eraikia aldatu gabe, eraikinaren egiturazko elementuren bat aldatzen denean edo lehendik ez zegoen hornidura berriren bat ezartzen denean.

Atal honetan jasotako birgaitze-obra handiak hainbat arlotakoak izan daitezke. Ohikoenak hauek dira.

- Eraikinak handitzea horiek jasotzeko obra eginez edo azalera gehiago hartuz
- Igogailuak edo antzekoak jartzea.
- Fatxadaren eta/edo teilatuaren birgaitze osoa.
- Merkataritzako lokal bati bizitegi-erabilera ematea.
- Eraikinean egiturazko aldaketak egitea behar duten etxebizitzan edo lokalen barne-egokitzapena.
- Etxebizitza bat edo batzuk banantzea edo batzea.
- Beren konplexutasunagatik edo ezaugarri teknikoengatik, edo duten garrantzi ekonomikoagatik, eskumeneko sailak obra handitzat jotzen dituen erreforma-obra.

c. Eraispin-obra. Eraikin bat osoki edo partzialki eraistea da.



ERAIKUNTZARI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTADISTIKA (EEEE) 2018ko 3. hiruhilekoa

EMAITZA NAGUSIAK

AURKIBIDEA

1. OBRA HANDIKO LIZENTZIAK	2
2. EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIAK ZER ERABILERATARAKO ZIREN	6
3. AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZAK, EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIEN ARABERA	8
ALDERDI METODOLOGIKOAK	12

Taulen aurkibidea

1. taula. Obra handiko lizentzien kopurua, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2018ko 3. hiruhilekoa	3
2. taula. Obra handiko lizentzien kopurua, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. Metatutako urteko datuak, 2018ko 3. hiruhilekoan	5
3. taula. Obra handiko lizentziak, obra zer erabileratarako zen kontuan hartuta. 2018ko 3. hiruhilekoa	7
4. taula. Obra handiko lizentziak, obra zer erabileratarako zen kontuan hartuta. Metatutako urteko datuak, 2018ko 3. hiruhilekoan	8
5. taula. Aurreikusitako etxebizitzak, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2018ko 3. hiruhilekoa	10
6. taula. Aurreikusitako etxebizitzak, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. Metatutako urteko datuak, 2018ko 3. hiruhilekoan	11

Grafikoen aurkibidea

1. grafikoa. Obra handiko lizentzien kopuruaren bilakaera, lurralde historikoaren eta hiruhilekoaren arabera. EAE. 1998-2018	6
---	---

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Zerbitzu Zuzendaritza. Estatistika Organo Berezia
Donostia-San Sebastián kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Harremanetarako pertsona: Aitor Puerta

Telefonoa: +34-945-01 69 61; Faxe: +34-945-01 98 56

WEBGUNA: <http://www.euskadi.eus/etxebizitza-estatistikak/>

Helbide elektronikoa: estadisticas-vivienda@euskadi.eus